



JANARIA BOTATZEAREN AURKAKO RAPA

Hezitzailearentzako oharrak:

Garrantzitsua da aurrez «Presta dezagun kanpaina bat» jarduerako lehen fasea behintzat eginda izatea, raparen oinarriko edukiak jarduera hartan sortutako dekalogotik atera ditzakezuelako. Interesgarria izango litzateke, bestalde, posterren jarduerak eginda izatea.

Honako esteka hauetan, raperako oinarri erritmikoak daukazue. Erabilgarriak izan daitezke jarduerarako:

- <https://www.youtube.com/watch?v=Q0JWsvlewIA>
- <https://www.youtube.com/watch?v=kZU9YY1UDMQ>
- https://www.youtube.com/watch?v=6W_0fWzHgug
- <https://www.youtube.com/watch?v=1e66UhRY2Os>
- <https://www.youtube.com/watch?v=HHLgdUzU2Dc>

Garapena:

- Jarri ikasleak taldeka, eta eskatu talde bakoitzari rap bat sortzeko, elikagaiak modu jasangarrian kontsumitzeko moduei buruzko dekalogoan oinarrituz. Letra sortu ondoren, oinarri erritmikoa erantsi.

Bateratzea:

- Talde bakoitzak bere rapa interpretatuko du. Egokia litzateke rap horiek ikastetxean ikasturtean zehar egiten diren beste jarduera batzuetan interpretatu ahal izatea, mezua ikastetxeko gainerako ikasleei ere zabaltzeko.
- Beste aukera bat ere badaukazue: rap horiek grabatzea eta sare sozialen bidez zabaltzea, «Presta dezagun kanpaina bat» jardueraren esparruan.